

Samaniego ikastetxeak eta Tolosako haur liburutegiak merkatu txikia abian jarri dute

Lortutako dirua Kolonbian gauzatu nahi den egitasmo baterako izango da

Tolosako Samaniego ikastetxeak eta Tolosako haur liburutegiak bigarren eskuko liburu, CD, VHS eta DVD bilketa antolatu nahi dute Kolonbiako MandoLiburuzaina izeneko proiektua aurrera eraman ahal izateko. San Joanetako azokan, hau da, ekainak 21ean, postu bat jarriko dute bildutako materialak salgai jarri. Lortutako dirua Kolonbiako komunitate batean liburutegi zerbitzu berezia jartzeko izango da. Zerbitzua aurrera eramateko hainbat baliabide finantzatu beharko dira: mando bat, alforjak, kultur-hezitzailearen soldata, liburuak eta ikas-materiala (nekazari guneetan ibiliko den. Liburutegi mugikorra edota MandoLiburuzaina izenekoa). Merkatu txikitik lortutako irabaziaz horretarako izango dira. Beraz, astelehenean hasi eta ekainaren 20a bitarte, liburu, CD eta VHS-en bilketari ekingo diote. Batetik, Tolosako haur liburutegira eraman edo bidali daitezke, 17.00etatik 20.00etara: Andre Maria plaza 5, 20400 Tolosa. 943 697461 telefono zenbakira deitu daiteke ere.

Bestetik, Samaniego ikastetxera ere bidali daiteke materiala, 9.00etatik 14.30era: Santa Lutzia auzoa 14 (eraikin zaharreko liburutegia, zuzendaritza ondoan) 20400 Tolosa. Silvia Mateo irakaslearekin harremanetan jar daiteke 943 651063 telefono zenbakira deituta.

Aurrekariak Samaniego ikastetxeko familia baten bidez, Fundación Vital izeneko GKEa zentroko ingurumen batzordearekin harremanetan jarri zen. GKE hau 50 familia arrisku handiko leku batean kokatzeko lan egiten ari zen Guabas erreka inguruan. Proiektuaren helburua, 50 etxebizitza jasangarri eraikitzea zen. "Han kultura ezberdinetako komunitateak izanda ere, loturak genituela garbi ikusi genuela anaiera-tze prozesu bati hasiera eman genion", azaldu dute Samaniegotik.

Ondorioz, Samaniego Ikastetxea Kolonbiako Guillermo León Valencia eskolarekin senidetu zen. Konpromiso hori, Mando liburuzaina lortzeko ahaleginetan zehaztu zen, herriz herri haurrei liburuak banatuz joan dadin.